



Euskarazko kultura digitala aztergai dute Sarean Euskaraz jardunaldietan

- Iruñerriko bigarren hezkuntzako 1.400 ikasle ari dira parte hartzen saioetan.
- Nafarroako Gobernuak eta Euskarabideak antolatu dute.

Ion Orzaiz

Euskarazko teknologia digitalak gazteen artean sustatzea: hori da Sarean Euskaraz jardunaldien helburuetako bat. Atzo goizean egin zituzten lehen saioak, Iruñeko Baluarte jauregian, eta gaur amaituko dira. Nafarroako Gobernuak eta Euskarabidea institutuak antolatutako ekinaldia da Sarean Euskaraz, eta ohar bidez azaldu dutenez, aurtengo aldia inoizko jendetsuena da: Iruñerriko bigarren hezkuntzako hamabi ikastetxek eman dute izena jardunaldietan. 1.400dik gora ikasle, guztira.

Atzoko saioan, zortzi tailer eta bi hitzaldi eskaini zizkieten neska-mutilei, eta, ohiko saioez gain, Break Out joko batean eta Egunean Behin lehiaketaren zuzeneko partida batean lehiatu ahal izan ziren. Bertan izan ziren Ana Ollo, Nafarroako Gobernuko lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilaria, eta Jabi Arakama, Euskarabidea institutuko zuzendari kudeatzailea.

Ollo lehendakariordeak azaldu zuenez, «oso esanguratsua da» egitasmo honek gazteen artean duen arrakasta: «8.500 ikasle

baino gehiagorengana heldu da egitasmo hau, aurtengo edizioa eta aurreko zazpiak kontuan izanik». Era berean, gogora ekarri zuen Europako Kontseiluak berak txalotu egin duela Sarean Euskaraz proiektuak «euskarazko teknologia berrien zabalpenaren eta euskal kultura digitala sustatzearen alde eginiko lana». Kontseilariaren esanetan, «apustu estrategikoa» da gazteen artean euskararen erabilera sustatzea eta eremu digitalean euskarazko tresnak garatzen laguntzea.

Ollok gaineratu zuen euskararentzako diru sailak handitu egin direla Nafarroako Gobernuaren aurtengo aurrekontuetan, gazteen eta teknologia berriekin lotura duten gaietan batez ere, baina baita beste zenbait arlotan ere: «Igoera hori islatzen da, besteak beste, helduen euskalduntzean eta komunikabideei, gizarte erakundeei eta tokiko erakundeei euskara sustatzeko emaniko laguntzetan».

Baluarteko esperientziari segida emate aldera, Iruñerrikan kanpoko beste 500 gazterengana ere helduko da Sarean Euskaraz proiektua. Zehazki, Altsasu, Bera, Doneztebe, Leitza, Tafalla eta Lekeozko institutuetan. ●

